



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntzarats (Nafarroa)

2024KO URTARRILAREN 31N BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntzaratsen (Basaburuan), 2024ko Urtarrilaren 31n, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Javier Auza, Iker Isiegas, Micaela Elizalde, M^a Mar Ansorena eta Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abenduaren 21eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

-2024/1 alkate ebazpena, 2023ko aurrekontuaren luzapena onartuz, 2024. urteko aurrekontua indarrean egon arte.

- 2024/2 alkate ebazpena, Iban Paskualek hala eskatutako. Berueteko 12. poligonoko 548 lursailean 12 ardi eta zaldi bat hazteko jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo kaltegabea deklaratzeko.

- 2024/3 alkate ebazpena baimena ematea Roberto Martín Fernandezi, Jauntzaratsen dagoen udal polikiroldegia eta Apeztegi berri eraikineko bigarren solairuko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, urtarrilaren 13an 16etatik 20etara urtebetetzea bat ospatzeko

- 2024/4 alkate ebazpena onartuz Igoako herriko kaleen izendegian 83. lursaila eta etxea ondoren Natividad 18 Markuetxea sartzeko.

-2024/5 alkate ebazpena lehen erabilera onartuz, Fernando Marculeta Aranari, Igoako 9. Poligonoko 83. Lursailean egindako etxebizitzarentzat.

- 2024/6 alkate ebazpena Igoako 9. Poligonoko 83. Lursailean egindako etxebizitzaren obra bukaera ikusita EIOZ.ren behin betiko likidazioa onartu, aurrekontua 19.973,41 eurotan igo delako.

-2024/7 alkate ebazpena baimena emaz Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko maskulinitate tailerrak burutzeko ondoren zehazten diren egunetan arratsaldeko 16:45etatik 19:15etara, urtarrilaren azken ostiraletik, martxoaren bigarren ostiralera.

- 2024/8 alkate ebazpena onartuz Beramendiko kale izendegian bi etxeen ondorengo izendapena: San Miguel 6 A (mendebaldeko sarrera) eta San Miguel 6B (ekialdeko sarrera) 31869 Beramendi

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Iruzuraren aurkako planaren onespina.

Alkateak azaltzen du PSTD programaren baita bi proiektu dituela udalak sartuak, alde batetik Ihabengo aisialdi gunearen egokitzapena eta bestetik Jaunsaratsko baso sorgindua.

Programa honen finantzaketa Next Generation Funtsetik datorrenez iruzurraren kontrako plan bat onartzea derrigortzen dituzte parte hartzaileak. Iruzuraren kontrako plan honetan zehazten dira iruzurra agertzen denean hartu behar diren neurriak, obren esleipenean kontratazio mahaiaren betebeharrak, interes gatazka adieraztea hala bada eta beste... plan hau indarrean egongo da betirako eta bi urtero berritu behar da. Planean zehazten diren neurriak eta betebeharrak proiektu osoan kontutan hartu behar dira.

Planaren helburuak hauek dira:

-Iruzuraren aurkako neurriak modu proportzionatuan egituratzea, "iruzurraren aurkako zikloaren" funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

-Berreskuratzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako Plana gauzatzeko funtsezko prozesuak iruzur-arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa egitea aurreikustea, eta iruzur-arriskuaren arabera aldizka, bi urtean behin edo urtean behin berrikustea, eta, nolana ere, iruzur kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsuak izan direnean.

-Prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak definitzea, egoera zehaztutara egokituak, iruzurraren hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.

-Alerta-seinaleekin bat datozen detekzio-neurriak aurreikustea eta neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztea.

-Iruzur-kasu susmagarri bat detektatzen denean hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztea, iruzur-susmoak jakinarazteko mekanismo argiek.

-Iruzur-kasu susmagarrien jarraipena egiteko eta iruzurrez gastatutako berreskuratzeko eta erresilientzia-mekanismoa berreskuratzeko prozesu egokiak ezartzea.

-Iruzur efektiboarekin edo potentzialarekin lotutako prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak zehaztea, iruzur-arriskuaren ebaluazioa berrikustera transmititzen direnak.

-Interes-gatazken egoerak prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko prozedurak definitzea, EBko Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoaren arabera. Zehazki, nahitaezkoa izango da interesik ezaren adierazpena sinatzea (IV., IV bis eta IV ter eranskinak) PRTRren exekuzio-prozeduretan parte hartzen dutenek, hierarkian gorago dagoenari interes-gatazkarik egon daitekeela jakinaraztea eta horrek kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea.

Planaren onespenearekin batera ere iruzurraren kontrako aitorpena ere onartu beharra dagoela adierazten du alkateak. Aitorpena alkateak irakurtzen du eta ondoren transkribatzen da:

“Basaburuko Udala erakunde irekia, gardena, irisgarria, osoa eta herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu eta politika publikoen etengabeko hobekuntzarekin konprometitu da, mundu guztiarentzat etorkizunerako eta aurrerapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako aukerak sortzeko gai dena. Horretarako, konpromisoa hartzen du langile guztiei eta, oro har, herritarrei honako balio hauek emateko beren jardueraren garapenean: Zintzotasuna eta dedikazioa portaera kolektiboaren bereizgarri nagusi gisa. Erantzukizuna, osotasuna eta adimena, baliabide publikoak administratzerakoan. Udalerriaren giza kapitalean, Udaleko profesionalen gaitasunetan eta herritar guztien gaitasunetan oinarritutako gobernagarritasuna. Kohesioa eta bizikidetzaren hirian, garapenearen eta aurrerapenearen funtsezko faktore gisa.

Hori dela eta, Basaburuko Udalak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandarrik altuenekiko konpromisoa adierazi nahi du, baita integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzenekiko atxikimendua ere, harekin harremanetan dauden eragile guztiek haren jarduera iruzurraren eta ustelkeriaren

aurkakotzat har dezaten, edozein modutan. Zuzendaritza-taldeko kide guztiek hartzen eta partekatzen dute konpromiso hori (VI. eranskina).

Halaber, enplegatu publikoek konpromisoa hartzen dute, Jokabidearen Kode Etikoan (V. eranskina) ezarritakoaren arabera, esleituta dituzten zereginak arduraz betetzeko eta interes orokorrak zaintzeko, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez, objektibotasunaren, osotasunaren, neutraltasunaren, erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, konfidentzialtasunaren, zerbitzu publikoari eskainitako dedikazioaren, gardentasunaren, eredugarritasunaren, austeritatearen, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren, zintzotasunaren, kultura- eta ingurumen-ingurunearen sustapenaren, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzearen printzipioekin bat etorriz, baita aipatutako Kodea inspiratzen duten eta jarraian adierazten diren printzipioekin ere: Toki Erakunde honek iruzurrezko jardueri adorea kentzen dien kultura sustatzen du, eta jarduera horiei aurrea hartzea eta antzematea errazten du, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak sustatuz. Hala, beste neurri batzuen artean, Udalak ekitaldi honetan bertan onartu ditu iruzurraren aurkako plana eta plan horrek jasotzen dituen prozedurak eta neurriak, balizko interes-gatazkek edo balizko iruzur-egoerak saihesteko eta, hala badagokio, zuzentzeko. Iruzurraren aurkako Batzordeak kontrol- eta jarraipen-lanak egingo ditu. Batzorde horrek korporazioko kide guztien, enplegatu publikoen eta Udaleko langileen laguntza izango du. Prozesuen arduradun eta kudeatzaileen laguntza ere badu, bakoitzaren erantzukizun-arloaren barruan barne-kontrol-eko sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko arreta egokia bermatzeko.

Azken batean, Basaburuko Udalak zero tolerantziako politika bat hartu du iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta kontrol-sistema sendo bat ezarri du, bereziki diseinatua iruzurrak prebenitzeko eta, ahal den neurrian, antzemateko eta, gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.”

Goian azaldutakoa kontutan hartuta bildutakoek aho batez ondoren zehazten diren erabakiak onartzen dituzte:

- **Ihabengo aisialdi gunea eta Jaunsaratsko baso sorgindua egiteko proiektuak PSTD programaren baitan egonik eta hots Next Generation Funtsen finantzaketa daukatenez, iruzurraren kontrako plana onartzea, goian zehazten diren helburuekin.**
- **Goian transkribatu den adierazpen instituzionala onartu.**
- **Iruzurraren aurkako batzordea osatuko dutenak ondorengoak izatea; Santos Etxegia, Julen Beunza eta Micaela Elizalde, Batzordeko idazkaria udaleko idazkaria izango da.**

4.- Salaketa kanala martxan jartzearen onespena.

Iruzuraren kontrako planarekin lotuta ere salaketa kanala martxan jarri behar dela azaltzen du alkateak, bertan edozeinek udaleko ekimenen kontrako salaketa jarri dezan.

Egun gestiona programak eskaintzen du salaketa kanala, egun kontratatuak dauden zerbitzuekin batera, hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute salaketa kanala martxan jartzea eta erabaki hau Gestionara jakinaraztea.

5.- 2024. urteko plantilla organikoa. Hasierako onespena.

Alkateak adierazten du, 2024ko aurrekontuarekin batera plantilla organikoa ere onartu behar dela . Abenduko batzarrean onartu zen aurrekontua hasiera batez eta orain plantilla organikoa. Irakurtzen du Basaburuko udaleko plantilla organikoa 2024. Urterako, honako hau delarik:

ZENBAKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK	HIZKUNTZA PROFILA	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%15 M.O., 31,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%15 M.O., %10,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa	%23,38 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

IZENEN ZERRENDA**FUNTZIONARIOAK**

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTU A	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	GRADU A	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Elena Jaunarena	Gaskue Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardune an	%100

LAN KONTRATUDUN MUGAGABEA EZ FINKOA

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAIL A	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Patxi Barrenetxea	Biurrarena Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011/11/01	%12, %42	Jardune an	%100

LAN KONTRATUDUN MUGAGABEAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAIL A	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardune an	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardune an	%100

LAN KONTRATUDUN FINKOA

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAIL A	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Aintzane Andueza Zabalo	Haur Eskolako hezitzailea	C	2021/08/23	%12, %18,52	Jardune an	%100

ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12, %3,28	Jardunean	%55
Maite Sanchez Lasterra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/04/01	%15, %31,38	Jardunean	%60,5
Cristina De los Reyes Ayerra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/11/08	%15, %10,76	Jardunean	%60,5
M ^a Paz Echarri Echeguia	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34
M ^a Carmen Mariezcurrena Unanua	Garbiketa zerbitzua	E	2022/09/07	%15, %31,38	Jardunean	%60,5
Ane Arraras Arangoa	Administraria	C	2023/06/20	%12, %3,28	Jardunean	%100

Alde batetik plantilla onartutako lanpostuak daude, administraria, bi garbitzaile, zerbitzu anitzetako langilea eta haur eskolako zuzendaria eta hezitzaile bat. Beste guztiak aldizkako langileak dira eta langileen zerrendan agertzen dira. Zalantza sortzen zaio alkateari Aintzane Andueza langilearen kontratu motarekin, mugagabe ez finko izan beharko lukeen, oposaketarik ez duelako gainditu. Zalantza hau Bidera aholkularitzarekin argituko da behin betiko onespenerako.

Hots eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 235 artikulua jarraituz " Toki entitate bakoitzak bere plantilla organikoan adierazi beharko ditu plazen eta lanpostuen ezaugarriak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuz kontuan hartzen direnak barne. Langile horiek hartzeko prozedurak ezaugarri horietara egokituko dira.

2. Toki entitateetako plantilla organikoak urtero onetsi beharko dira, aurrekontua onestarekin batera. Onesteko eta hura indarra dagoen bitartean aldatzeko, aurrekontuetarako ezarritako tramiteak bete beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere barne.

3. Elkarte-izaerako entitate bat edo hitzarmen bat egoteagatik, toki entitate batean baino gehiagotan aritzen diren langileak badaude, langile horiek plantilla organiko bakar batean agertuko dira, organikoki menpean dituen entitaterenean hain zuzen, eta horren aipamena egin beharko da lanean ari diren gainerako entitateetako plantilla organikoetan.

4. Toki entitateek plantillaren kopia bat igorriko diote Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, behin betiko onetsi eta hilabete bateko epean. Horrekin batera, lanpostuen zerrenda ere igorriko da, bakoitzean ari diren langileak aipatuz.”, bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- Basaburuko udaleko 2024. Urteko plantilla organikoa hasiera batez onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, 15 egun baliodunen epean.

5.- Ibilgailu istorikoen zirkulazio zergaren hobariak arautzen dituen ordenantza.

Behin betiko onespina.

Alkateak azaltzen du, 2023ko urriaren 25eko batzarrean hasiera batez onartu zen ordenantza, honen helburua da 25urtetik gorako ibilgailuak ed historikoak direnen zirkulazio zergan hobariak izatea, 25 urtetik gorako kasua hobaria %50eko izango da eta ibilgailu historiko izendapena dutenek %100ekoa.

Hortaz eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako 325 artikuloa jarraituz hasierako erabakia azaroaren 7ko 231 Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta hilabeteko epea abenduaren 22a bukatu da eta ez dira alegazioak jarri.

Hortaz eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako 325 artikuloa jarraituz, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betiko onespina ematea Ibilgailu istorikoen zirkulazio zergaren hobariak arautzen dituen ordenantzari eta ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

6.- Mozioak.

Ez daude.

7. - Batzordeen informazioa.

Euskara Batzardea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Korrika Batzardea eratu da eta bilera izan zen aurreko astean, korrikaren baitan ekintza desberdinak antolatzeke eta eskolari proposamena luzatuko zaio Dani Martirenaren liburu berriaren aurkezpena bertan egiteko eta mago baten emanaldia ere.

Ohi bezala udalak kilometro bat erosiko du.

Santa Ageda, aurten Udabe eta Beramendin egingo da.

Ostalariei zuzendutako euskararen inguruko formakuntza laster hasiko da.

UEMAko teknikariarekin bilera egin da plan berriaren aurkezpena egin zen bertan eta formakuntza desberdinak egingo direla azaldu zuen, eskolan eta kontzejuetako ordezkariekin ere...

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Eskola kontseiluko bilera egin zen jardunaldi hautaketaren inguruan, Hautaketa egiteko prozesuari hasiera emateko lehenik eskola kontseiluko %25ak baieztatu behar zuten. Ez zenez gutxienez hori lortu ez da hautaketa prozesua irekiko eta hortaz hurrengo urtean ere jardunaldi zatitua izango du eskolak.

Eskolan egin beharreko inbertsioen inguruan hitz egin zen ere eskola kontseiluan eta gela batzuek leihak eta eskola zaharreko pertsonak aldatzeko beharra ikusi zen. Kontutan hartuta eskoletan inbertsioak egiteko diru laguntza onartu duela Nafar Gobernuak, aztertuko da bertan sartzeko aukera.

Berdintasun Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bilera burutu zen 2024ko aurrekontua onartzeko, plantilla organikoa eta lan egutegia. Egonkortze prozesua ere habian jarriko da, 3 langile daude prozesu horren baitan.

Bestetik berdintasun teknikariak eszedentzia eskatu du eta ordezkaren prozesua abiatuko da.

Bestetik batzordeko bileran, Txokolatero etxearen egokitzapenaren inguruan proiektua egiteko, idea lehiaketa prozedura martxan jartzearen inguruan hitz egin zuten. Ze arkitekto gonbidatuko diren ere zehaztu zituzten eta proiektuak bete behar dituen baldintzen inguruan.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

2023ko kontuak aurkezteko bilera izan zuten, eta horren emaitza da Basaburuak 5800 euro inguruko ekarpena egin behar duela eta Imotzek 3000 euro ingurukoa. Txirindula eskola bat antolatze proposamena atera da bailarako hiru bizilagunen aldetik eta batzordean aurkeztu zuten proposamena. Eskola hau ez da bakarrik umeentzat bideratua, adinez nagusikoak ere parte hartu ahalko dute.

Garapen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Soroetan loreak landatzeko diru laguntza lerro bat atera da, abonua ematen ez zaien pastizaletan aukera gehiago dago loreak ateratzeko. Edozein interesdunek eskatu ahalko luke.

Bestetik PSTD programan bi proiektu sartuak dituela gogoratzen du, Ihabengo aisialdi gunearen egokitzapena eta Jaunsarasko baso babeslearena bestetik. Jada proiektuak egin ditu Mediodes arkitektura enpresak eta Cedernara bidali dira, oniritzia eman dezaioten.

Ihabengo aisialdi gunearen inguruan aipatzen du, proiektuak sartu dela komun idor bat, bigarren balsara sarbidea egokitzea egurrezko plataforma baten idez, eta umeendako jolas naturalak egingo dira. Obra honen gasta 97.00 eurokoa da eta laguntza kopuru berekoa.

Bestetik Jaunsarasko baso babeslearen proiektua buruko da Txokolatero etxea eta botikako eraikinaren atzealdean. Labirinto antzeko formatu izango du baso babesleak eta elementu naturalak erabiliko dira gauzatzeko. Aurrekontua 50.000 euro ingurukoa izango da eta sarrera 50.000 eurokoa.

8.- Informazio orokorra.

Batzarrak burutzeko eguna zehaztea posible den komentatzen du Iker Isiegasek, eta bildutakoek eztabaidatu ondoren, hilabeteko azkeneko asteazkenean arratsaldeko 19etan finkatzea adosten dute. Behin behineko data izango da, beti ere aukeran aldatu ahalko delarik.

Bestetik aipatzen du Basaburua Imotz elkartzeko lanpostua egonkortzeko prozesua bukaeran dagoela, falta dela azken dokumentazioa aurkeztea eta izendapena onartzea.

Basaburuko udaleko lanpostuen egonkortzeari hasiera emango zaio hurrengo batzarrean, oinarriak onartuz. Lehenik haur eskolako lanpostuaren egonkortzea egingo da, oposizio lehiaketa bidez bete behar delako, azterketa eginaz. Ondoren egingo dira meritu bidez bete behar diren lanpostuek prozesuak.

Bukatzeko alkateak adierazten die bildutakoek Itsaso eta Beramendin eolikoak jartzeko proposamen bat iritsi dela, enpresa batek aurkeztu du proposamena eta eskatu dio udalari araudira egokitzen edo ez adieraztea txosten baten bidez. Horren erantzun bezala azaldu zaio enpresari, udalak onartuak dituen tasak ordaindu beharko dituela, txosten bakoitzeko.

Proiektua hau Imotz, Arakil eta Ziako bailarak zeharkatzen du, eolikoak Basaburuan egongo dira baina bertatik ateratzen den argi indarraren linea Imotzik Arakilerara joango da, bertan dagoen goi tentsioko linearekin lotzeko. Hainbat bilera egin ditu alkateak aipatutako udalerrietako alkateekin. Proiektu hau Nafar Gobernuan oraindik ez dela aurkeztu ere jakin dute.

Proiektu hau aurrera ez egiteko proposamena litzake udal honena eta horretarako udal arkitektoarekin gaia aztertu ondoren ondorioztatu da udal plan berriaren behin behineko onespenean urbanizagabeko lurrian eraikitzeak aukerak zorroztea da. Eta horretarako udal plana idatzi duen arkitektoarekin bilerak egingo dira arau berriak jartzeko.

Bestetik Itsaso eta Udabe Beramendiko kontzejuko alkateekin ere bilera izan duela azaltzen du alkateak proiektua aurkezteko

9. Erreagu-galderak

Ez daude.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez 20:35ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.